



IĒROKO ALDIZKARI EDERGARĪDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

15 Urtea + 1932'ko EpaiĻa + 159 Zenbakia

Gurutzearen Maitale ta Etsaiak



Oyartzun'en.—Eramu egunean. Abeslariak erdian.

Lufekogauzetan gurutzeabaño gauza ikaragafiagorik etzan antziñan. Ori baitzan urkamendia; gaizkileak alako bi egur gurutzetuetan loturik edo josirik iltzen zituzten.

Juduarentzat gurutzea, gauza madarikatua zan; eta berori ukitu besterik egiten etzuen ere, madarikatutzat zeukaten.

Jesus, gure maitetasunaz, ofelako batean josirik il'zan ordea. Geroztik egi au siñisten dugun guzientzat, gurutzea lufeko gauzarik maitagañiena itzuli zaigu; baño ortan siñisten ez dutenentzat eta siñetsi nai ez luketenentzat, gurutzea len bezin gauza gofotagañi da.

Gurutzea bereizpidea da.

Ezekiel Igarle doneak, Jerusalemgo gaiztakeriaz negar egiten zuten guzietan beren kopetetan *thau* edo gurutzea jartzen zien aingerua ikusi zuan



Oyartzun.—Eramu egunean Gurutz-bidea egitean.
Irugarren geldialdia.

(Ez. IX-4.) Juan Ebanjelariak befiz Jainkoaren ezaungafia zeraman aingeruari entzun zion, lufeko lausaietsetan zeuden aingeruei ojuka: «ez gero jo, ez itsaso ta ez legofari, Gure Jaungoikoaren mirabeai beren kopetetan (bekokietan) ezaungafia jafi arteraño (Apoc. VII-2-3). Kristauaren ezaungafi au bereiz-

pide bat izan da beti, ta gaurkoan ere alaxe da.

Onak bereizten ditu, esan dugun santuak diotenez, aingeruen begietan Jaungoikoaren maite diranak, alako ez diranetatik. Baño baita gizona gizonagandik ere beronek bereizten du, oraindik lufean gauden garai berean.

Aldekoak eta etsaiak

Simeon Agure santuak Jesus aurtxoa bere besoetan arturik, Aren amari esan zion: «Ona, au askoren ondamenarako ta piztuerarako jafia izan da Israel'en, baita ere gogor egingo zaion ezaungafitzat (Luc. II-34). Jesus bere befi ona zabaltzer atera zan bezin laxter asi zan esan au betetzen; batzuek Jesusen alde txoraturik bezela; besteak Jesusen aurka esa-mesa mingafia zeriela.

Baño biotzetako iritzien ezaungafiegi azkotzat Kalbario mendian agertu zan Jesus. Antxe agertzen dira bere aldekoak;



Oyartzun.—Eramu egunean aur ta gazteak Gurutze-bidea egiten.

antxe agirian bere etsaiak ere. Etsaien artean aipatzen zaizkigu ebangelio-
tan Apaiz Nagusiak, Eskribauak eta efiko agureak, Jesusi biraoka; beste ju-
du asko buruari eragiñez beren erakusle oien esanak befitzen; etsaien alde-



Jesus gurutziltzatua

tik ageri dira lena bi lapufak, ufena bata Jesusen aldeko agirian jafirik eta
bere lagun gaiztoari esanez: «ik ere eztiok bildurik Jaungoikoari, urkamen-
di berean berarekin agolarik? Guk, ordea, geren egintzai zor zaiena zerama-
kiagu, onek ordea gaitzik ezтик egin» (Luc. XXIII-40-41).

Jesusen maitale agertzen dira lenengoz Jerusalem'go alaba negafez bere bidera atera ondoren, Jesusen gurutze ondotik baztertu etziranak; Maria Jakob'ena, Maria Salome, Maria Magdalena eta beste aipatzen ez dizkigutenak; auek guziak Jesus beraren Amaren ondoan. Juan Ebangelaria ere an bertan agertzen zaigu; Jesusen aldetik jartzen ikusten dugu Eunkari edo Zenturiona, inoren bildurik gabe zionean: «egiaz gizon au, gizon gaitzgabea zan (Luc. XXIII-47). Onen ondoren beren bulafak joka negafez Jerusalem'era itzuli ziran efitar asko (Luc. XIII-48). Baita Arimatea'ko Jose ta Nikodemus, Jesusen gorputza Pilato'ri eskatu ta ilobi befian sartu zutenak ere.

Geroztik bi aldetara jafi izan da beti gizaldia; batzuek maitetasun ezin bizigoaz Jesus gurutzetuaren alde; eta besteak amofurik beltzenaz biotzak beterik, gurutzetu ori ondatu beafean.

Apostoluen egunetan

Apostoluak Jaungoiko gurutzean iltzeraño maitatu genitunaren befia zabaltzean, gauza bera gertatzen zan. Siñisten zutenetan maitetasunik kartsuena pizten zan artean, siñisten etzutenai gofoto beltza sortzen zien gurutzeak. Pablo Apostoluak dio: Gurutzearen itza zorakeria da galtzen diranen begietan; zeruratzen diranentzat ordea, au da guretzat, Jaungoikoaren indafa da (I Cor. I-18). Kristo gurutziltzatua adierazten dugu guk, naiz juduentzat gaiztabide ta jentiñentzat erakeria izan; deituak diran judu eta gerkatar be-roientzat Jainkoaren jakinduria (baita) (I-Cor. I-24-25).

Argatik pozez beterik zijoazen Apostoluak Jesusen izenagatik lotsabidea (ziorkaldia) eramateko gauza izan ziranean (Act. V-41). Bitartean Saulo (gero Pablo Apostolu izango zana) su ta gar dakusgu, Jesusengan siñisten zuten guziak il beafean. (Act. VIII-IX).

Jesusen befia zabalduz zijoan ariora Jesusen etsaiak ere ugaritu ziran. Bai ordea Aren maitetasuna adierazteko beren bizia pozik ematen zutenak ere. Iru eunurteren buruan amaika miloi martiri ba-ziran eta bizi-mala guzietan kristau ugari. Egi utsa baitzan Tertuliano'k ziona: martirien odola, kristau befien azi zala».

Intza'r Damaso An.

(Bukaera urangoan).

LITURGIA ZALEAK IRAKURÍ

Aurtengo gure liturgia liburutxoan lengo urtetakoa baño ere askoz atsegingafiagoa da. Euskera efaz-efazean Bezperaen ta Meza Santuaren befia ta liturgia gure Arbelaitz bikañak jafi digu. Geiago dana, Bezperak (igandekoak) latíñez eta euskeraz ematen dizkigu; baño oso ongi itzulirik. Meza santuaz beste ofenbeste egin du. Apaizak egunero esaten dituan mezako otoitz guziak euskeraz jafi ditu ta azkena *Misa Dominicalis* esaten zaiona bere musikarekin eta latíñez eta euskeraz. Bezperetako salmo guziak ere beren asieran ortxe daukate beren eresi edo musika. Apaiz Liturgi-zaleak eskatu laxter, eskatu agudo zenbana iyeki nai dituzuten esanaz. Lengo urtetan belaxa bakoitza bostna txakur aundiz ematen dira.

ESPAK

«Popule meus, quid feci tibi?
«Zertan gaitz egin dizut, ene Eria»?

Norañoko miñaldi, nolako atsekabe
biotz onek bakarrik esango lizuke.
Oinperatua nago guzien aldetik
ta atzindu nayan dabiltz luraren gañetik.
Euskal-Eri mamia, eririk maitena,
¿zergatik damaidate gaur damaidatena?
¿Zertan gaitz egin diet? ¿Zertan ditut mindu?
Zerorek, ene eria, erantzun zaidazu.
Efi guzien gaindi autetsi ziñudan
ta aspaldi nere eskua sumatu zenduan.
Garaile izandu zera egundo Nerekin...
Etzaitezela zu gaur batu etsayekin.

Zure asaba zarak maite bai-ninduten
ta aurerapen-aziak ixuri nizkien.

Ta alaz ere zuk orain, bein itsumusturik,
baztertuko al nauzu lur maite-ortatik?

Euskal-Efi mamia, ¿zertan gaitz egin dut?
Orain Ni ez artzeko ¿zertan mindu zaitut?
Eman nizun euskera, eman nizun gara,
ta amaika aldiz izan naiz euskoen indara.

Ta ara nola gaurkoan norbaitzuk dabiltzan
nere uztari leuna kentzeko asmotan.....

Ara nola gordean piztitzar maltzurak
malmutz ifo nairikan usotxo xamurak.

Zertan, bada, eria, zertan dut gaitz egin
maitatzea ezpada maitasun onekin?
Noiztik-nora gaurdaño ezertan Nik mindu?
Eri maite-kutuna, erantzun zaidazu.

Eman nizukeana oro eman nizun...
erantzun, ba, oraintxe utzi nezakezun.
Aintziñatik izan-ta nere begikoa,
etzaidazula gaur zuk atera malkoa.

Geroratu baño len zentzuratu zaitzez
ta alkartasun estuaz beriz lotu gaitzez.
Jaso zazu lepora nere uztaria
ta arinduko dizut Nik zure min-laria.

Ez nazazu baztertu, ez utzi atzera
ta askatua zu laister ikusiko zera...
Euskal-Eri mamia, Burutzat ar nazu.
Z ure Buru naizela zorioneko zu.

LORAMENDI (O. M. C.)



NEGA'REZ!



egafez daukat biotza.

Odolezko negafa dario, samintasunezko negar gafatza.

Badijuaz mugak zear Elizak dauzkan langierik bikañenetakoak, edo bikañenak.

Alpefik da eusko-endak izan duan gizonik aundienaren semeak izatea.

Alpefik da Euskalefiko txoko baten izena Europa ta Amerika'ko uri auferatueta, Aprikako baso mugik gabeetan, Ozeania'ko ugarte edo is-

larik txikienetan ezagutuazi duanaren semeak izatea.

Esan lufeko efiai zergatik ezagutzen duten Loiola izenaz ta Iñazio donearen izenaz batua dagoalako beren belafietaratu dala esango dizue.

Alde guztietan Iñazio donearen semea izatea gauza aunditzat daukate, erlijioaganako gofotz beren begiak itxuturik dauzkatena ezpada.

Iñazio donearen semeak ikustean gogora etortzen zaigu oien alkartasunak munduko ikastetxe auferatuenetakoak berak dauzkatela.

Iñazio donearen Lagundi edo Konpañia esatean, berak aña Misiolari siñismen gabekoen artean iñork eztauzkala gogoratzen zaigu.

Lagundi agufgafi au gogoratzean, irakurgai onen alde nere ustez lan geiago egin dutenak dirala.

Lagundi onetaz itz egitean on da Macaulay ospatuaren itz auek! gogoan eukitzea: » Jesusen Lagundian izaera katolikoaren mamia bildu zan. Jesusen Lagunak alde guztietan ta mota guztietako jantziz arkitzen ziran, ezdabaidan, naigabetuak alaitzen, gazteriaren biotza irabazten, itxaropena galdu zutenak alaitzen eta iltzeko zaudenai gurutzea muñ emateko eskeintzen. Etzan mundu zafa bere lan egin nai afigafirako naiko zabal. Peru'ko meatzetako zuloetan, Aprika'ko jopu edo esklaboen artean eta Txina'ko oarleku edo obserbatorioetan arkitzen dira. Doi-doi Alkartasun onek eungafen urte bete zuaneko bere martiri eta siñismen edo fedearen aldeko bufuken garai-pen-ezagungafiz mundu guztia bete zuan. »

Afitzekoa al da, Elizaren etsaiak, Euskalefiak izan duan semerik aundienaren seme on-onak ezin bere begien afean ikustea?

Zergatik egiten diote ainbesteko bufuka siñismenaren gaurko etsaiak? Irakufi Menendez y Pelayo jakintsu aundi-aundia arek esana.

Eztio Buruzagiren batek, ez jakintsuren batek Loiola'ko Iñazio doneak aña beste munduari eragin. Europa'ren erdia ez aurkalari edo protestante izatea, asko beintzat, Jesusen Lagundiari (Konpañiari) zor dio-ta.

Elizaren etsaiak zergatik gofotatzen dute ainbeste?

On-ona dalako.

Santutasun aundiak beren artean distiatzen dualako.

Jakinduri aundiaren jabe diralako, eta jakinduri oñen bidez Elizaren etsa-
iai aoa ixten dielako.

Jakinduriakin batean kristau-siñismena zabaldu, goratu ta indartu egi-
ten dutelako.

Negar egin dezagun etsaiak iritxi duten garaipen aundiagatik.

Negar egiteko gogoia datorkit, euskerari Jesusen Lagundikoak eragin-
go zioten auferapena gogoratzen dedanean.

Nork neurtu A. Olabide'k *Itun Beria* egiteko bear izan duan jakinduri
eta lan ikaragarria? Bai ote dira Euskalefian olako lana egiteko bear diran
doaiak dituzten bi gizon?

Eta Biblia edo Idazti Deuna oso-osoia itzultzeko lanean ari zan. Izuga-
rizko galtzea gizon au bakara galtzean Euskalefiak izan duana. Nork beteko
du utsune au?

Non geratuko dira Agife Aita ta *Jesusen Biotzaren Deia* idazten zu-
ten beste idazle trebeak?

Ba-daukagu negar egiteko bidea Euskaldunak ta batez ere euskal-idaz-
leak eta euskaltzaleak.

Negar egin dezagun, baño era berean asmo sendo bat artu dezagun:
Al degun guztia Jesus maitearen alde lan egitea. Ola egin ezker, Jesusen
Lagundikoai befiz gure artera etortzeko mugak zabaltzen asiko gera.


Agur, Euskalefiko apaingafirik edefena zeraten oiek!

Agur ta laster itzuli.

Oñetarako otoitz eta lan egingo degu.

Arbelaitz.

Asmakizuna



Enaratxoak jana nai dute; mitxeletarik ifion ba al dauke?




O Cor dulcissimum


Ex «Cantuale Romano-Seraphicum»

(Donostiar J. And. Abak ereskidetua)

O Bi - otz go - zo - a! gu-re mai-ta-sunez zauri-
O — — — Cor dul-cis - si - mum! a-mo - re no-stri vul - ne -



tu - a; Jainkoz-ko Bi-otz a zu goratzen, jau - res - - -
ra - tum, Cor di - vi - nis - simum! laudamus te, ad - o - - -



ten, zai - tu - gu, zu maite zai - tu - gu, es - kef - ak diz - ki - - tzu - gu.
ra - mus te, re - da - ma - mus te, gra - ti - as a - gi - mus ti - bi.



(Ant. ad Magnificat—I Vesp.—Officii SS. Cordis
:—: :—: Iesu, ex proprio Massiliensi.) :—: :—:

Guzien Ereditu

Erleak gozatu ez dezaken gafaztasunik ez-ta gaurdaño ikusi. Ozpiña bera ere erlearen ezten txikiak bein ikututzean, ezti biurturik gelditzen da... Nonai dala, noranai doala, edozehekin dabilela, beti eta era guzietara, izan oi da erlea ongile. Nonai eta nolana langile ixil-pufukatua; nonai eta nolana egin-kizun garbien usai gozoa; nonai eta nolana ibili onaren aztarna loretua... Baratzetan dala edo lafean dabilela, beti dixuri norbaiteren gain berezko duan ezti-tanta...

Goiza bada, eguzkiak erletegiko telatu-ertza ikutu orduko, or dijoa zuzmuru ixilak ereslari, lorerik lore bidea duala; or dijoa oroitzza gozoetan ameslari, kolkoa damayon lore-begian muxu bat utzirik; or dijoa urin-malutan egalari, bufun-bufun mimiko bakoitzean gorde-ageriz, arin-arin mitxeleta-aizpakin kukuka balebil bezela. Ta ereslari ta ameslari, ameslari ta egalari... badijoa, badijoa ta ufuntzen da, ufuntzen da ta... ¿nora da?..

Eguzki-izpitan moxkorturik datza oro. Itur-aria-ren marmafera dantzatzen dalarik, ortxe dago erlea uf-mitxika noiz elduko. Ufezturik dauzka oin-punteak, ezti-gai-mamiz aro lepo-azpiko zofotxoa... Iritxi du noizpait eta txint batean jeikitzen dalarik, nunaitik margo-itufia dariola, badijoa..., badijoa ta ufuntzen da, ufuntzen da, ta ¿nora da?..

Geroztik beste erle batek afitu nau: ixiltasun-zalea da. Baña bertatik atera dituan bufundi zoliak esnarazi ditu txokoetako xomofo lizunak. Ikusi det oraindaño sortu zan lorerik edeñena miztutzen; ikusi det zoragafizko efegina alboan duala... ¿Nor eta nungo dan?.. Ofa or, irakurle, *Jose Donea*, zerutar erle bikaiña; ofa or *Andra Maria*, bere *Efegina*; ofa or *Jesus Aupa*, margo bizizko lore urintsua..

Nazaretako efaultzak santutasunezko ezi; tanto sendoak dixurizki...

Loramendi An.

Gure Amonak



Anizeta Huizi,
Goizueta'r Jakoba Anaiaren ama zana.

NORI etzaio biotza gogoraldi pozkafiz betetzen bere amonaz oroitzen den bakoitzean?

Gure aurrekoak amonari eman dizkion izen guziak beren ontasunaz itzegiten ari zaizkigula deritzait. Amona, Ama-ama ta Amandrea esaten zaio Gipuzkoaldean, Amatxi, Amitxi, Amiñi Nafarroko alde askotan. Lendabiziko bi izenak gure aurreko oien ontasun aundia, ama beraren ontasuna baño ere aundia goa azaldu nai digutela dirudi. Amona, ama-ona ta ama-ama izenaz, ez ote zaigu gogorazi nai, amak aña jo nai, ta bear ere lukenean, gure amonak gure alde egiten zutena?

Nork eztaki, amonik ezagutu ba-zun, bere bilobatxoan utsegin guzietarako ta gaiztakeri bakoitzeko ba-zutela beren aitzekia; eta amak joko genitun bildufez, amonak bein baño geiagotan bereak aitu bear izaten zituela?

Amandrearen izenak ba-dirudi Amandrea etxeko Andre, ta guztien ardura artzale beti izaten zan garaiean sortua. Guztien begiramendua, gure guraso beren lotsa eskatzen duen izena da beintzat. Amandrearen babesean eta itzalean

bai gozaro bizitzen dala, gure aurreko amandreak bezin emakume etxekoi ta elizkoia danean amandrea.

Amatxi, amitxi, amiñi izenak ere gure aurreko oien biguintasuna agertzen digute, noski, *Amatxi, ama-utxi ta amitxi* gauza bera esan nai digute, bataioan bere beso gozoetan artu genitun ama. Jaungoikoak bere aurretako artu genitunean, gure amatako eskeñi zitzaiguna, ta bere besoetan ordu zorioneko artan jaso genituna. Eta ez al da egia amautxiak, bataioan jaso genituztenak, beti izaten digutela, alako maitetasun berezi, biguin, pozkafi bat? Ona, ba. Gure artean aur bat jaiotzean, Aitaren aita eta amaren amak jasotzen zuten lenengo aña; amaren aita eta aitaren amak bigafena eta oitura onek oraindik erę ba-dirau gure efi prankotan. Ortik ba gure amitxi, ez-titasuna beti biotz eta ezpañetan bilobentzat zutenen izen gozoa.

Eta amiñi? Amiñi izenak ez al du gero amatxo edo ama-txiki edo alatsu

esan nai? Izen onekba-dirudi, aur beren agotan sortutakoa ta zafagoak gero jasotakoa.

Nere amonak gogoratzean emakume elizkoi uts-utsa datorkit nere burura. Aietzek bai emakume siñistedun edo fededunak.



EROSARIORA BIDEAN

Goizean jeiki orduko, erosario santua oiean esaten aritzen ziran.

Illobatxoak esnaratzean, asten ba-giñan izketan, bereala amonak berekin batean *Goizeko Agur-Mariak* (Angelus) edo beste zerbait otoitz esan erazten zigun. Bera jeiki-ta, aren atzetik ba-ginjoazen, oe ondoko ur-be-deinkatu ontzitik ura arturik, banan-banan Gurutze santua egin beafak giñan.

Ondoren ba-ginjoazen, iñor etzan sukaldean sartuko, atean Agur-Maria esan gabe. Iñoiz bateon bati aztutzen bazitzaion, bereala amonak sukaldetik aterazten zuan; eta atean sartu baño len Agur-Maria! esan bear zuan eta ondoren egun onak guziei emanez sartzen giñan sukaldean.

Aur txikienak amonaren magalera zijoazen, soñekoak ez bazan oñeta-koak jaztera, ta ark bere beñoetan ura zuela, guziok arekin batean *Aita Gure*, *Agur Mari* ta *Gloria Patri* zenbait esan bear genitun.

Meza santura lendabiziko joango zan, eta guziak itzuli ta ondoren noiz-pait itzuliko zan gure amona. Bere lanen artean ez al zerabilen otoi-tza beti bere ezpañetan?

Naiz ale edo pikofa jalkitzekoan, naiz isatsa eskuan zuela etxea garbitzekoan, naiz ibili oloai edo txefiei jana ematen, amonaren ezpañak etzeuden geldi; beti bere agoan zuan otoiza. Otordu guzietan maiean jafi orduko *Aita gure* bat edo geiago esaten genitun.

Afatsean efosario santua guziok esaten genun geren amona ardatzean edo goruetan firiri-firiri ari zen bitartean.


Amona xartu da, makilaren gañean ibili bear; baño ala ere ark egunoroko meza utzi? Ez orixe! Antxe dijoa amona mezara. Nola? Batzuetan or dakusutzen ori nik ikusi nuen bezala, bikundean gaitzak jafirik, bi makiltxoren eutsian, buruz lufa joko ezpadu.

Oil! amona gaxoak! Gaur zuen begiak beñiro idekiko ba-zinuzteke, zuen biloba ta oraingo amonak ta oiek azitako ilobatxoak ikustean eztakit lotsatuko ez ote ziñeteken onelako ondorekoak dauzkatzutela ikusirik.

Oil! amona zorioneko, otoizlari asperkaitzak, eska zaiozute Jaunari zuen ondoreko gaurkoen alde.

Ar'tar A

Asmakizuna



Ama-semeak or dauzkatzu. Aingerutxo bat biñ zazu.

HONG-KONG'dik

Intzar Damaso A. A.

Iruñan (1)



ERE biotzeko Aita maitea: Jaunak bereganatu gaitzala gero etageyago.

Azkenekoa Hong-Kong'ko uria aurrez-aurre neukala bukatu nuen eta orain bertatik zerbait ere esan nai dizut.

Ontzi gañetik begira giñaudela Dominikar Aita bat Apaiz jantzian agertzen da eta ikusi orduko zapela jaso eta ufundik agur egiten digu.

Ura gure poza! Zuzen zuzen guregana dator eta ongi etofia eman eta berealaxen asten da batekin eta besteakin itz egiten ontzitik gu ateratzeko geren tresna guztiekin...

Ba genituen egun batzuek Hong-Kong'en egoteko... Ilabete bat osoa itsasoan eraman eta aste bateko astia izatea etzan agitz txar guretako.

Azken agufa egin genion «gure ANGERS zafari» eta or goaz urian barna Dominikaren etxera arin-arin...

Emen daukate Dominikafak «Misioetako Prokura»: au da edozein gauzen beafa dutela Txinako Misiolariak, emendik laguntzen die. Onera gauzak ekartzeko eraztasun aundia bai dago nundinaitik...

Jakiñen gañean bai zeuden Dominikafak orduko, egun ta sekulako poza artu zuten beren artean gu ikusi ta...

Anaiak ez dituzte obekiago artuko.

Bost bat egun egin genituen emen.

Txinan lapufen eskuetan loturik egondu dan Dominikar Gotzai Jaun batekin, goizero ateratzen giñan mendi aldera.

Batzuetan oñez, beste batzuetan *tranvia* artzen genuela (aldapa gora ateratzen da kremalerazkoa), beste batzuetan automobilaz egiten genuen joan-etofia.

Egun alai eta gozoak izandu ziran Hong-Kong'en egin genituen egunak. Ori bai egiazko senideak izatea dala.

Hong-Kong'ko uria itsasoak bi aldeetara erdiz berezia dauka. Txina alderdian bat eta bestia Hong-Kong'ko ugarteko lufian. Politen politena au. Emen daukate Dominikafak beren kayola, iya mendi ertzean, toki polit eta alaietan. Mendi onetan goratu dute uria Inglesak. Etxe guztiak «txalet» antzekoak lorategiz inguratuak: itsasoa danetatik ageri dala, palmera lerdien eta gure Euskalefiko txaran antzekoz edertua. Afatsaldero itsas aize otx-otxa eta leku zoragafia.

(1) Aspaldi artu genuen au baño dakarzkina befiak atsegin izango zaizkitzutelakoan dijoa.

Auxen da guk ere egun batzuetako autatu degun txoko polita...

Aufez afe Txina daukagu.

Danak lotara joaten ziranean ni bakafik gelditzen nintzan Txina aldera begira... Zenbat amets ez ditu egin nere buruak batetik bestera Txinara joateko egondu naizenean! Orain Txinaren afean arkitzen naiz.

Ain biziro ikusi naye negoen lufa, ikusten det; eta Txinako befi negargafiak Dominikar Misiolariet entzun ta negafez begiak betetzen zaizkit eta biotza samintasunez...

«Iruetan egun urte eta geyago daramazkigu Txinan sartu giñala, zion, befogei urte an dagoen Dominikar Aita batek, eta ez da ezertxo ere nabari gure lana!

300,000,000 (iruetan egun miloi) ba dira Txinan eta geyen geyenak Jaungoikoa ezagutzen ez dutela oraindik. Ainbeste Misiolarien neke eta negar eta odol ixurtze eta naigabe eta ain gutxi auferatzen duela gure fediak.

Iluntasunak urtzen du biotza, eta Kansu aldean arkitzen diran nere lagun maitetaz oroitu eta otoitzaren egaletan bigaltzen dioet danei agur beroa. Nere anai maiteak zuek, ainbeste eraman bear dezutenak Jaungoikoagatik... Zorionekoak zerate zeñen aundia den zuen maitetasuna Jaunari ederki adierazten diozutelako...

Ainbeste anima ilunpetan oraindik! Noiz arte efi aundi onen jabe izango ote dira zure etsaiak?

Gaueko amaikak ematen zidaten noiz nai.

Ez da au gure Euskalefi maitea bezela... An danak kristauak, eta emen batere ez edo gutxi...

Ba dugu Misiolariok lana nun egin eta ba dute biotz efukitsuak zertaz ufikaldu eta zertaz otoitz egin...

Azken eguna da Hong-Kong'en egiten degun au eta Dominikar Aita on auek zuzentza guztiak berek egin dizkigute... Onegiak dira guretako.

Atsedena ederki artu degu... Agur bero-bero bat danei egin eta bagoaz ontzi befi bat artzera. «Empress of Asia» Kanadako ontzi galanta. Lauak aldean Hong-Kong utzi eta itsasoan sartu gera. Itsasoa paketsu.

Ontzia ariñ-ariñ, eta jendia alai... Eta bi egun terdiz Manilan gaude...

Hong-Kong'dik Manilara batere okefik gabe egin genuen Jaungoikoari esker. Eta Garagartzaroaren 28'en goizean uzten degu ontzi au ere, eta bi automobiletan Manilan sartzen gera. Lourdesko Andre Mariaren Eliz etxean Manilako gure anaiei besarka bana ematen diegula...

Ufengoan Manilatik egingo dizut Jaungoikoak nai badu...

Agur: oso ongi gaude danok...

Agindu nai dezuna zure Anai

Afayozko Artzañari
(Guam'ko Misiolaria)

1931'ko Garagartzaroaren 28'ean.

Ilabete onen amairugafen egunean Meza bat emango da
ZFRUKO ARGIAREN idazle, irakurle, ta ongile
guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.

Ikasi!... Ikasi!



1. Gotzaia zatoñen bein gure efi batera bere bafutikoak gozaro ikustera: Eta Martin artzaia ora non bidera datorkion apalki agur-egitera.

2. Eratzuna luzatuz Gotzaiak dasaio: «Aufa, esan zaidazu, Jainkoa non dago?» «Jauna, afen, esan bezait, nonbait ez al dago?» «Auxen dek auxen aufa. ¡Bai zugan izango!»



3. Irudi bat aufari belaxe erakutsiz: «Apaiz nai al duzu izan» dasaio berariz. Artzaiak bi begiak Gotzaiagan josiz: «Prañe sartu naiean nago, gogo guziz.»

4. Martintxok nai zuena iritxi ondoan Apaiz ere egiñik Meza eman zuan: Misiotara naiez gero jafirikan, Artalde bat bikaña ba-du Amerikan.



GOYEN BEGO

Madotz'en aukeratuen eriotz antzekoa egin du gure Aldizkari onen Zuzendari Intza'r Damaso Aitaren aitak.

Felipe Olasaga're ta Amondarain, Intza'ko semea D. Karlos'en azkeneko

gudaldian bi urte ta erdiz ibilia zen. *Irunberin, Artazu'n, Olague'n* eta *Beran* egindako ekiñaldietan egon zan. Azkenean saldurik zeudela ezaguturik, bere jaitetxera itzuli ta antxe ezkondu zen; befogei ta amairu urte egin ditu ezkonduarik. Zortzi seme-alaba izan zitun. Oietatik lau setioan sartu ziran eta iru ezkondu. Naiz txikitan aita gabe gelditua izan, Jaungoikoaren bildur aundikoa zen. Euskaldun jatofa ta kristau egiazko, siñismen bizi-bizizkoa beti izan zala esan dezakegu. Bereak diote beti ontzat zeukatela; baño azkeneko bere gaitzaldiraño ez dutela ezagutu zein ona zan. Befogei egunez egon da azken aldean oatzetik jeikitzeiko gauza etzala, biotzeko miñetik zetozkion dardafaldi neketsu ta asnase ezin-artuaren estutasun gogofetan; baño bere miñak aterazten zion aiuri bakoitzean, Jesus onari, Ama Maria Birjiñari eta bere biotzak maite zuen santuen bati gogoz deitzen zion. Iru seme alaba setiokoak bere ondoan izan zituan egunen batzuz, lagun egiten, eta bata ondoan zuela azken asnasea eman zuan. Bere seme, gure Aita Intza'ri, bere Anai Kasino'ri ta etxekoai laguntzen diegu beren naigabea. Gure irakurleai beriz otoitz bana eskatzen diegu kristau gartsu onen alde.

¡Goyen bego!

IL-BERIAK

Zeruko Argia'ren arripedun zintzo ziran auek Jaunaren besoetan betiko loak artu ditu:

Erasun'en: Migel Martín Elizalde. **Tolosa'n:** Tiburzio Ugartemendia. **Azpeiti'n:** Pedro Jose Uriarte, Abade Jna. **Lezo'n:** Jasefa Zumeta; Jose Ignazio Queregeta; Nikolasa Salaberia; Agustina Irazusta. **Irun'en:** Jose Joakin Aizpurua; Pedro Diez; Klementina Ubiria eta Franzisko Bikuña. **Ondarabi'n;** Maria Kamio, Lorenzo Etxeberia, Antonio Guartamendia ta Ines Laborda. **Donosti'n;** Dolores Egia. **Aramaiona'n** Biktorko Goikoerota ta Dionisio Mazbela.